

ARAMA ZAITEZ


12.zenbakia

2015eko abendua



ARAMAKO BERREIN BOLETINA

Aurkezpena



Beste behin, konturatu gabe, Gabonak gainean ditugu turroi eta polboroiez gainezka eta herrian Gabonekin eta Olentzerorekin lotuta, abenduaren 19an hasiko diren Gabonetako egitaraua duzue.

Bestetik, Udaletik ez dugu urtea amaitu izan nahi parte hartzeko ohitura sustaitzen jarraitu gabe. Nola ba etorkizuneko Arama antolatu herritarren iritzirik eta ekarpenik gabe? Honela, abenduan herritarren ekarpen eta kezka biltzeko batzarrak antolatu ditu udalak.

Guzti honekin batera, Nerea Goikoetxea eta Manu Unaue herriko kirolariak eta Liburutegian opor hauetan gozatzeko dituzuen ekarpenen berriak dituzue.

Bukatzeko, Gabonetan Panettone Italiarra prestatzeko errezeta eta lehiaketan parte hartzeko hitz-jokua dituzue.

Animo eta parte hartu!!

Udaleko informazioa guztia

www.arama.eus web gunean duzue eguneratuta.

Aldizkarian

Parte

hartzea

Agenda

Abenduak
22

18:00etan TOR MAGOAREN IKUSKIZUNA

Abenduak
23

19:00etan OLENTZEROREN ETORRERA

Abenduak
24

09:00etan OLENTZERO EGUNA

GABONAK 2015

EGITARUA



Abenduak **19** larunbata

11:00 ESKULANAK

Gabona iritsi dela eta haur txokoa apaintzeko eskulanak .

Abenduak **22** asteartea

18:00 TOR magoaren ikuskizuna

Areto Nagusian adin guztiei zuzendua eta guztientzako magia.

Abenduak **23** astezkena

19:00 OLENTZEROREN ETORRERA

Ondoren txokolate beroa.

Abenduak **24** osteguna

09:00 OLENTZERO EGUNA

Kantatzera aterako gara herriko kaleetan zehar.

Abenduak **29** asteartea

11:00 GAZTE LOKALEAN PIN-PON LEHIAKETA

Ondoren lunch-a dastatuko dute

Urtarrillak **4** astelehena

16:00 LOITZA PILOTALEKUAN DENOK PATINATZERA ETA JOLASAK

Urtarrillak **8** ostirala

17:00 GOAZEN PELIKULA EMANALDIA GAZTEENTZAT

Udal liburutegian LIBURU BERRIAK. GOZATU!

Zatoz eta eseri gurekin une batez, Aramako liburutegiak hilabete honetan eskuratu dituen liburu berriez gozatzera!

Aurten liburutegian gai desberdinetako eskurapen berriak egin ditugu : eleberriak euskaraz eta gazteleraz, haur literatura, ipuinak, osasuna eta familia, bidai liburu eta gidak....

Etorri eta gozatu opor hauetan!!

HAURRETZAKO LIBURUAK



DVD-ak eta ZINEMA



HELDUENTZAT LIBURUAK



ASTE BURU SOLIDARIO ARAMAN

Abenduaren 11 eta 12an, Gaztaintxota Kultur Elkartek eta Udalak antolatuta, "Aste buru solidarioa" izan genuen beste urte batez. Herri-tarrei esker, eginiko bilketa xumean janaria eta arropa bildu ziren.

Bildutako janaria, Goierriko Caritaseri bideratuko zaio eta arropa Etiopia Utopia Elkarteari.

Berriz ere, mila esker guztioi parte-hartzeagatik eta emandako laguntzagatik.



EUSKAL DANTZA IKASTAROAK

AMETS BIDE dantza taldeak, Araman euskal dantza ikastaroak antolatzeko aukera zabaldu digu eta adin guztietarako daude zuzenduak.

Euskal dantzak gustoko badituzu eta interesa baduzu ikastaro hauetan, eman izena udaletxean edo buzoian.



HERRI BATZARRAK



Udalak antolatuta, hilaren 10, 15 eta 17an herri batzarrak egin dira Araman.

Herritarrek dituzten kezka, gomendio eta iritziak jasotzeko helburuarekin antolatu dira. Era berean, partidetza harremanak estutzea ere lortu nahi izan da.

Egindako bileretan, 50 herritar inguru bildu dira eta bertan, parte hartu duten herritarren kezka, egindako proposamen eta ekarpenak jaso dira. Hauek aintzat hartuta, udalak hurrengo urteari begira, gai hauen inguruan hitz egiteko, beste parte-hartze bilerak antolatuko ditu.

Bilera hauetan egon ez diren gainontzeko herritarrei ere beraien ekarpenak egiteko deia zabaldu nahi diegu.

Herria guztiona delako eta guztientzako izan behar duelako animatu zaitetz eta parte hartu zure iritzia emanetz!!



nerea goikoetxea TXAKUR KROSA

Duela urtebete inguru hasi nintzen txakur-krosetan parte hartzen. Baina aspalditxotik ibili izan naiz txakurrekin mendian, oinez eta korrika.

Kirol mota hau ez da oso ezaguna inguruan behar bada, baina txakurrak izan eta korrika egitea gustoko izanez gero, aukera perfektua da. Pixkanaka hasi nintzen lasterketetan parte hartzen eta oso gustura gabiltza. Txakurrentzako ere lasterketa hauek oso egokiak dira: beste txakur batzuekin elkartu, sozializatu eta dibertitu egiten baitira.

Lasterketak ez ditut bereziki prestatzen. Nire errutinaren parte da txakurrarekin korrika egitea, eta horixe da nire entrenamendua. Normalean egiten ditudan saioak lasterketen ohiko luzera bano luzetxoagoak izaten dira, eta horrek behar bada ez dit uzten lasterketa laburretan nire potentzial osoa garatzen.

Ez dut helburu gisa hartu eta ezta hartu nahi ere sariak irabaztea. Kirol honek eskaintzen didanarekin txakurrak eta biok gozaten jarraitze sari bikaina da izan ere!

Bitxikeriak

- Kirola erabat baldintzatuta dago txakurra-
ren ongizatearekin. Eguraldi beroa bada,
lasterketa laburtu edo bertan behera uzten
da; txakurra beti aurretik joan behar da;
noski, ezin da txakurra jo; lasterketa erdian txakur-
rak aurrera egin nahi ez badu, ba beste
baten izan beharko da!

- Une bitxiena irteerakoa izan ohia da. Suer-
tatu izan zait 60 lasterkari baino gehiago ba-
tera ateratzea, eta une horretan dagoen gi-
roa deskribaezina da. Tentsioa, txakurrak
urduri eta zaunkaka. Une arriskutsuena ere
hasiera izaten da, tentsio honen ondorioz
txakurrak azkar ateratzen baitira, eta elka-
rren artean traba daitezke.

- Sarri entzun izan dut, zakurrak tiratzearekin
nahikoa dela eta norberak ia ezer egin behar
ez duela. Normalean, goranzkoak txakurrak
ez du asko tiratzen, bai ordea beheranzko-
an. Lurraren egoeraren arabera, eta txakurra
kontrolpean ez baduzu, min hartzeko aukera
handia izaten da.



manu unanue DONOSTIAKO MARATOIA

MANU UNANUE, Donostiako maratoiko txapeldun.

Manu korrikalariak, Donostiako maratoia lasterketa irabaztea lortu du, 50 urtetik gorako mailan. Bi ordu, berrogeitabat minutu eta 2 segunduko denborarekin.

ZORIONAK MANU!!



ERREZETA PANETTONE ITALIARRA



OSAGIAK

Esne basokada
bat

Legami hauts
zorrotz bat

600 g irin

200 g gurin

100 g azukre

3 arrautza

100 g fruta azukretua (errege koroan
jartzen dena)

100 g txokolate

100 g almendra



PRESTAKETA

Katilu batean esnea (kanpo tenperaturan),
legamia eta 250 g irin nahastu.

Kanpoan utzi 25 minutu handitu arte.

Beste irinarekin egin menditxo bat eta ire-
ki zulo bat. Bertara, gurina urtuta, gatza,
azukrea eta arrautzak bota. Hau dena na-
hastu aurreko masarekin eta gehitu
paxak, txokolatea eta almendrak.

Koipetu molde altu bat (pudding-eko bat
adibidez). Tapatu eta utzi bi orduz.

Gurin urtuarekin margotu goiko aldea eta
laberatu 40 minutu 220° C .

Onegin!!!

LEHIAKETA

5x5 ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA

E				A
A				A

1.Ezinezkoa

2.Kaskar

3.Zarpail

4.Larru (Bizkaieraz)

5.Erregela, norma

Udaletxeko
buzoian sar-
tu zure
erantzuna.

Toki Alai ja-
tetxean 2
lagunentzako
asteburuko
menu baten
zozketan sar-
tuko zara.

***Aurreko zenbakian ez da parte-hartzerik
egon.***